

Ikastolara sarrera Ate Nagusitik egingo da (Arkutik), eta eskaierak igota Ate Urdinetik erdiko patiora joan beharko da. Ikasle/familiak markatutako lekuan zain egon beharko dira segurtasun tartea errespetatuz. Geletako sarrera - irteera patioko ate **beltzetik** izango da.

Bere gelara joateko, igo behar diren eskaieraren ezkerreko aldetik igoko dira.

IRAILAK 7-11 BITARTEAN.

Aste honetan zehar, ikasleak **8:45-9:00 bitartean sartuko dira geletara** Jantoki aurreko ate beltzetik. Haurra tutore batek jasoko du eraikinaren sarreran, eta bere gelara bideratuko du tenperatura hartu eta eskuak garbitu ondoren.

- **Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago.**
- **Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarrarekin etorriko dira.**
- **Ikaslea orduz kanpo badator, idazkaritzatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz.**

Ikasleak eguerdian, **12:30** aterako dira klasetik. Ikaslea **BAZKALTZEN GELDITZEN BADA** irteera **14:30tan izango da**, markatutako ibilbide berdinetik.

Behin umea hartuta, ezin izango da ikastolan gelditu.

SARRERA-IRTEERA



IKASGELETARA SARRERA IRTEERA



FAMILENTZAKO ITXARONGUNEA

